

Estatistiko Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren emaitza nagusiak

2022ko 4. hiruhilekoa



LANBIDE-KABINETE TEKNIKOA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

INeren BAiren aldagai nagusien laburpena

Tasa nagusien bilakaera	2022-4H	2022-3H	2021-4H	Aurreko hiruh.	Aurreko urtea	Sailkapena2 022-4H	Sailkapena2 021-4H
Enplegu tasa 20-64 urte	73,97	74,58	74,12	-0,6	-0,2	5	5
Enplegu tasa GIZONEZKOAK	78,96	78,84	76,37	0,1	2,6	4	7
Enplegu tasa EMAKUMEZKOAK	69,08	70,40	71,91	-1,3	-2,8	4	1
Enplegu tasa Araba	75,38	72,93	74,41	2,4	1,0	5	9
Enplegu tasa Bizkaia	74,06	73,63	73,40	0,4	0,7	14	13
Enplegu tasa Gipuzkoa	73,14	76,97	75,14	-3,8	-2,0	18	4
Enplegu tasa Estatua	69,51	69,91	69,12	-0,4	0,4	29	26
Aldi baterakotasun tasa CAE	19,61	21,28	25,30	-1,7	-5,7	13	10
Aldi baterakotasun tasa Estado	17,93	20,18	25,38	-2,3	-7,5		
Lanaldi partzialaren tasa	15,30	14,81	16,71	0,5	-1,4	15	17
Lanaldi partzialaren tasa GIZONEZKOAK	7,54	8,25	7,62	-0,7	-0,1	14	16
Lanaldi partzialaren tasa EMAKUMEZKOAK	24,08	22,05	26,21	2,0	-2,1	13	15
Lanaldi partzialaren tasa Estatua	13,59	12,76	13,56	0,8	0,0		
Langabezia tasa	8,66	8,29	8,43	0,4	0,2	2	1
Langabezia tasa GIZONEZKOAK	8,11	8,16	8,94	0,0	-0,8	5	4
Langabezia tasa EMAKUMEZKOAK	9,27	8,43	7,90	0,8	1,4	1	1
Langabezia tasa Araba	7,81	8,62	8,71	-0,8	-0,9	4	6
Langabezia tasa Bizkaia	8,96	9,58	9,50	-0,6	-0,5	14	11
Langabezia tasa Gipuzkoa	8,57	5,98	6,55	2,6	2,0	11	1
Langabezia tasa Estatua	12,87	12,67	13,33	0,2	-0,5		
Jarduera tasa 16-64 urte	76,53	76,82	76,28	-0,3	0,3	5	5
Jarduera tasa 16 a 64 años GIZONEZKOAK	81,05	80,94	78,74	0,1	2,3	5	11
Jarduera tasa 16 a 64 años EMAKUMEZKOAK	72,08	72,77	73,84	-0,7	-1,8	7	5
Jarduera tasa Araba	77,26	75,21	75,93	2,0	1,3	10	13
Jarduera tasa Bizkaia	76,97	77,30	77,05	-0,3	-0,1	12	10
Jarduera tasa Gipuzkoa	75,44	76,82	75,22	-1,4	0,2	22	19
Jarduera tasa Estatua	75,19	75,59	75,20	-0,4	0,0	25	20

Biztanleria aktiboaren bilakaera	Hiruhilekoa			Saldoa		Bilak %	
	2022-4H	2022-3H	2022-4H	Aurreko hiruh	Aurreko urtea	Aurreko hiruh	Aurreko urtea

LANDUNAK

EAE Guztira	949.297	959.744	957.000	-10.446	-7.703	-1,1	-0,8
EAE Gizonezkoak	503.679	503.206	488.759	473	14.920	0,1	3,1
EAE Emakumezkoak	445.618	456.538	468.241	-10.920	-22.623	-2,4	-4,8
Araba Guztira	149.422	146.085	148.652	3.337	770	2,3	0,5
Araba Gizonezkoak	77.356	75.673	75.951	1.684	1.405	2,2	1,9
Araba Emakumezkoak	72.066	70.413	72.701	1.653	-635	2,3	-0,9
Bizkaia Guztira	499.247	499.975	495.441	-728	3.806	-0,1	0,8
Bizkaia Gizonezkoak	268.085	261.612	251.800	6.473	16.285	2,5	6,5
Bizkaia Emakumezkoak	231.162	238.363	243.641	-7.201	-12.480	-3,0	-5,1
Gipuzkoa Guztira	300.628	313.683	312.907	-13.055	-12.278	-4,2	-3,9
Gipuzkoa Gizonezkoak	158.238	165.922	161.008	-7.684	-2.770	-4,6	-1,7
Gipuzkoa Emakumezkoak	142.391	147.762	151.898	-5.371	-9.508	-3,6	-6,3
Estatua Guztira	20.463.856	20.545.725	20.184.947	-81.869	278.909	-0,4	1,4
Estatua Gizonezkoak	10.977.688	11.115.039	10.830.885	-137.351	146.803	-1,2	1,4
Estatua Emakumezkoak	9.486.168	9.430.686	9.354.063	55.482	132.106	0,6	1,4
EAE Lehen sektorea	11.491	9.187	9.095	2.304	2.396	25,1	26,3
EAE Industria	198.739	195.048	200.791	3.691	-2.053	1,9	-1,0
EAE Eraikuntza	57.310	53.640	44.653	3.669	12.657	6,8	28,3
EAE Zerbitzuak	681.758	701.868	702.461	-20.110	-20.703	-2,9	-2,9
Estatua Lehen sektorea	753.227	728.990	1.285.943	24.237	-532.717	3,3	-41,4
Estatua Industria	2.801.803	2.809.753	2.765.178	-7.950	36.625	-0,3	1,3
Estatua Eraikuntza	1.300.797	1.328.811	1.285.943	-28.014	14.854	-2,1	1,2
Estatua Zerbitzuak	15.608.030	15.678.171	15.293.695	-70.142	314.335	-0,4	2,1
EAE Aldi baterakoak	160.947	175.311	206.590	-14.364	-45.643	-8,2	-22,1
EAE Aldi baterakoak Gizonezkoak	64.434	69.297	87.547	-4.863	-23.114	-7,0	-26,4
EAE Aldi baterakoak Emakumezkoak	96.513	106.014	119.043	-9.500	-22.530	-9,0	-18,9
Estatua Aldi-baterakoak	3.114.684	3.512.443	4.308.466	-397.759	-1.193.782	-11,3	-27,7
Estatua Aldi-baterakoak Gizonezkoak	1.390.431	1.646.952	2.018.010	-256.521	-627.579	-15,6	-31,1
Estatua Aldi-baterakoak Emakumezkoak	1.724.253	1.865.491	2.290.456	-141.238	-566.203	-7,6	-24,7

LANGABEAK

EAE Guztira	90.004	86.723	88.125	3.281	1.879	3,8	2,1
EAE Gizonezkoak	44.480	44.708	47.956	-228	-3.477	-0,5	-7,3
EAE Emakumezkoak	45.525	42.015	40.169	3.510	5.356	8,4	13,3
Araba Guztira	12.665	13.781	14.190	-1.116	-1.525	-8,1	-10,7
Araba Gizonezkoak	6.916	8.058	7.594	-1.142	-678	-14,2	-8,9
Araba Emakumezkoak	5.749	5.723	6.596	26	-847	0,5	-12,8
Bizkaia Guztira	49.153	52.975	51.994	-3.823	-2.842	-7,2	-5,5
Bizkaia Gizonezkoak	25.949	27.919	31.397	-1.970	-5.448	-7,1	-17,4
Bizkaia Emakumezkoak	23.203	25.056	20.598	-1.853	2.606	-7,4	12,7
Gipuzkoa Guztira	28.187	19.967	21.940	8.220	6.246	41,2	28,5
Gipuzkoa Gizonezkoak	11.614	8.731	8.965	2.884	2.649	33,0	29,5
Gipuzkoa Emakumezkoak	16.572	11.236	12.975	5.336	3.597	47,5	27,7
Estatua Guztira	3.023.982	2.980.200	3.103.843	43.782	-79.861	1,5	-2,6
Estatua Gizonezkoak	1.400.991	1.336.769	1.448.225	64.221	-47.234	4,8	-3,3
Estatua Emakumezkoak	1.622.991	1.643.431	1.655.618	-20.440	-32.627	-1,2	-2,0

AKTIBOAK

EAE Guztira	1.039.301	1.046.466	1.045.125	-7.165	-5.824	-0,7	-0,6
EAE Gizonezkoak	548.159	547.914	536.716	245	11.443	0,0	2,1
EAE Emakumezkoak	491.143	498.552	508.410	-7.410	-17.267	-1,5	-3,4
Araba Guztira	162.087	159.866	162.843	2.221	-756	1,4	-0,5
Araba Gizonezkoak	84.272	83.731	83.546	542	727	0,6	0,9
Araba Emakumezkoak	77.815	76.135	79.297	1.679	-1.482	2,2	-1,9
Bizkaia Guztira	548.399	552.950	547.436	-4.551	964	-0,8	0,2
Bizkaia Gizonezkoak	294.034	289.531	283.197	4.504	10.838	1,6	3,8
Bizkaia Emakumezkoak	254.365	263.419	264.239	-9.054	-9.874	-3,4	-3,7
Gipuzkoa Guztira	328.815	333.650	334.847	-4.835	-6.032	-1,4	-1,8
Gipuzkoa Gizonezkoak	169.852	174.652	169.974	-4.800	-121	-2,7	-0,1
Gipuzkoa Emakumezkoak	158.963	158.998	164.874	-35	-5.911	0,0	-3,6
Estatua Guztira	23.487.838	23.525.925	23.288.790	-38.088	199.047	-0,2	0,9
Estatua Gizonezkoak	12.378.678	12.451.808	12.279.110	-73.130	99.569	-0,6	0,8
Estatua Emakumezkoak	11.109.160	11.074.117	11.009.681	35.042	99.479	0,3	0,9

BZITANLERIA 20-64 URTE

EAE Guztira	896.624	894.901	889.513	1.723	7.111	0,2	0,8
Estatua Guztira	18.442.965	18.378.136	18.256.465	64.829	186.500	0,4	1,0

Sailkapena: EAEk gainontzeko erkidegoen aldean duen ordena zehazten du, postu onena 1. izanik eta 17.a okerreana, Lurralde Historikoez aldez, 52.a gainontzeko probintzien aldean

Iturria: INE, BAI-Mikrodatuak

Elaborazioa: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. LANBIDEko Kabinete Teknikoa

ENPLEGUAREN EMAITZA NAGUSIAK

20-64 urte bitarteko pertsonen enplegu tasa azken hiru hilera honetan %74,0koa izan da, aurreko hiru hilera baino 0,6 puntu baxuagoa eta aurreko urtekoa baino 0,2 puntu baxuagoa. Azken hiru hilera enplegua murriztu egin da EAEn -10.446 landunetan eta azken urtean -7.703 landunetan murriztu da. Estatuko autonomia erkidegoen artean EAE 5. postuan kokatzen da enplegu tasari dagokionez, 0 postu atzeratu ditu aurreko urtekoarekiko. Enplegu tasa handiena duen erkidegoa Errioxa da, %76,1ko tasarekin, EAEko baino 2,1 puntu altuagoa . Enplegu tasa baxuena duena Andaluzia da, %61,1 tasarekin, EAEko baino 12,9 puntu baxuagoa .

Enplegu tasa handiena duen Lurralde Historikoa Araba da, EAEko batez bestekoa baino 1,4 puntu altuagoa. Tasa baxuena Gipuzkoari dagokio, EAEko batez bestekoa baino 0,8 puntu baxuagoa. Emakumeen enplegu tasa %69,1koa da, gizonezkoena baino 9,9 puntu baxuagoa, gizonezkoena %79,0koa da.

Aldibaterakotasun tasa %19,6koa da, Estatukoa baino 1,7 puntu altuagoa da. Madril (Erkidegoa) da aldibaterako soldatapekoen proportzio baxuena duen erkidegoa, %13,9 tasarekin, altuena Extremadurak du , %26,8 tasarekin. Lanaldi partzialak enplegu totalaren %15,3a suposatzen du EAEn, %7,5 gizonezkoen artean eta %24,1 emakumezkoen artean. Lanaldi partzialeko langileen portzentajea EAEn Estatukoa baino 1,71 puntu altuagoa da.

Azken hiru hilera, landun kopuruari dagokionez portaera onena izan duen jardura sektorea lehen sektorea izan da, %25,1ko hazkundea balore erlatiboetan; portaera txarreana izan duen sektorea zerbitzuak izan da, %2,9ko murrizketa balore erlatiboetan. Azken urtean bilakaera onena izan duen sektorea eraikuntza izan da, %28,3ko hazkundea balore erlatiboetan; bilakaera okerreana izan duena zerbitzuak izan da, %2,9ko murrizketa balore erlatiboetan.

LANGABEZIAREN EMAITZA NAGUSIAK

2022ko azken hiruhileko EAEko langabezia tasa %8,66 izan da, aurreko hiruhilekoa baino 0,37 puntu altuagoa. Azken urtean langabezia tasa 0,2 puntutan hazi da. Balore absolutuetan langabezia 3.281 pertsonatan hazi da azken hiruhilekoan eta 1.879 azken urtean.

Estatuko datuekin alderatuz, Euskal Autonomia Erkidegoa 2. postuan kokatzen da langabezia tasa onenari dagokionez. Tasa baxuena duen erkidegoa Errioxa da, %8,6ko tasarekin; tasa altuena duena Andaluzia da, %19,0ko tasarekin.

Emakumezkoen langabezia tasa %9,3koa izan da, gizonezkoena baino 1,2 puntu altuagoa. Azken hiruhilekoan emakumezko langabeen kopurua 3.510 pertsonatan hazi da, eta azken urtean 5.356 pertsonatan hazi da. Gizonezkoen kasuan, langabetu kopurua 228 pertsonatan murriztu da, eta azken urtean 3.477 pertsonatan murriztu da. Gaur egun langabe guztien %50,6a emakumezkoak dira; duela urte bete portzentaje hau %45,6koa zen.


JARDUERAREN EMAITZA NAGUSIAK

EAEko populazio aktiboa 1.039.301 pertsonakoa da, horietatik %47,3 emakumezkoak dira. Azken hiruhilekoan aktiboen kopurua 7.165 pertsonatan murriztu da; azken urtean 5.824 pertsonatan murriztu da. 16-64 urte bitarteko pertsonen jarduera tasa %76,5koa izan da, %81,0 gizonezkoetan eta %72,1 emakumezkoetan. EAEko jarduera tasa Estatukoa baino 1,3 puntu altuagoa izan da; Estatukoa %75,2koa izan da.

BALORAZIOA

INEen Biztanleria Aktiboaren Inkestak erakusten duenez, 7.703 pertsona gutxiago daude lanean EAEn aurreko urteko lauhileko berberarekin alderatuz, eta 1.879 langabe gehiago daude. Oro har, okupazio-tasek jaitsiera txiki bat izan dute aurreko urtearekin alderatuta; hala ere, gizonen eta emakumeen arteko okupazio-tasaren portaera argi eta garbi desberdina da, gizonen tasa 2.6 puntu handiagoa baita eta emakumeena 2.8 puntu txikiagoa. Hala, langabezia-tasa %8,66koa da, iaz baino 0.2 puntu handiagoa. Estatu Espainiarreko erkidego guztiak kontuan hartuta, Euskadi 2. postuan dago, eta tasa Estatukoa baino 4.2 puntu txikiagoa da. Nahiz eta hiruhileko honetako datuek inflexio-puntu bat markatzen duten 2021ean hasitako suspertze-joerarekiko, 2022ko datu guztiak kontuan hartuta, esan dezakegu aurreikuspen ekonomikoak bete direla, 2022an enplegua sortzeko prozesua luzatuko zela aurreikusten zutenak.

20-64 urte bitartekoen enplegu tasa



Langabezia tasa

